

ERENDERI 'TAR ERAIMUNDA ABA

Arrate Egaña

JOSE RAMON ASTIBIA ETXEGOIEN olerkari errenteriarra da, eta ez oso etorri handikoa. Gure poeta hau, bi gai besterik ez zuen landu: erlijioa eta aberria. Bizi izan zuen garaia, ordea, kontutan hartu beharrekoa da. Astibia 1881ean jaio zen. Poesiagintzan hasi zenean, egun oraindik eragin nabarmena duen aldi batean zen Euskal Herria: Erromantizismoan alegia. Erromantizismoan motibo zehatz batzuetan oinarritzen zen literatura: niaren aldarrikapena, izadia goraiatzeko da, baserriko bizimodua idealizatuz, antiindustrialismoa, kristautasuna eta katolizismoaren itzulera ...eta hau dena giro politiko karlista batean murgilduta. Euskal nazionalismoaren oinarri ideologikoa osatzen ari zen.

Giro honetan zenbait idazle on agertu ziren: Etxahun, Eusebio M^o de Azkue, Elissamburu edo Arrese Beitia esaterako; inguru honetan kokatzen dugu gure olerkaria ere. Beraz, eta aipatutakoa kontutan izanik, ez da batere harrigarria Astibiak aipatu gaiak hautatzea eta hain sutsuki tratatzea gainera.


BIZITZA

Bere liburu bakarrean, Aldaya delako batek, zertzelada bene-tan xelebreen bitartez, zenbait datu eskaintzen dizkigu Astibiaren bizitzari buruz: *"Oyartzun go mendietatik Erenteri bañena datoren ereka ondoan dago bere jaiotetxea; -esaten digu- Fanderia. Inguruko lertxundi, zumardi, arkesti ta makal-degiak badakite aren aurtzaro alayaren berri; bai ta ere Fanderia'tik Aranguren-baseri aldera dauden sagasti eta gereiztiak... San Markos ta Aya-tontoreñ artean dauden malda, muño, ibar, zelai eta zoko atsegiñetan entzun ta ikasi zituan."*

Hamaika urte zituela, Lekarozko ikastetxera joan zen; han erdal integrista ezagutu zuen, nahiz eta noizean behin Etxalar abadeak Azkueren Euskalzale irakurtzen zien.

Hemeretzi urterekin Madrilen egon zen El Pardoko lekaide-txean, eta han abertzale eta euskalzale porrokatu bilakatu zen; Aldaya jaunak azaltzen baitigu: *"ango bizimodua ikusita, bere Aberriaganako zaletasun bizia sortu zitayon. El Pardo'ko mutilak etziran noski Erenderiko mutil sendoen antzekoak"*.

Zortzi urte igarota, Lizarrako fraidetxera aldatu zen, eta bertan, nahiz eta euskaraz hitzegitea edota idaztea debekaturik egon, bere lan mardulenak burutu zituen. Honela dio Lizarran



idatziriko gutun batean: *"...neretzat samintasun andiyena orixe da; erderaz egin bear, nai ta naiez..."*

Muskuriako Tuterako zenobioan hil zen 1916 urtean.

LANAK

Apaiz honen poesiak, 1935 urtean argitaratutako *Olerkiak* liburuan bilduta daude. Aipatu dugun legez, hitzaurrea, olerki batzuei buruzko iruzkinak eta bukaeran agertzen den hiztegi bat, Aldayarenak dira.

Olerki guztietan, ikuspuntu tradizional bati eusten dio, bai kristautasunaz, bai aberriaz. Tonu tragikoa dario, xamurra batzutan, eta aski puztua sarriegi. Neurkera ugariz osaturik daude poema guztiak: zortziko handia, zortziko txikia, hamarrekoko handia, hamarrekoko txikia, ...

Poemok atal bitan agertzen dira:

-Otoitzak: gehienak elizan abesteko eginak, *"...samuñak, dira, biguñak, beroak, erexak,..."* Aldayaren hitzetan. Hamasei olerki dira eta bertan Jainkoari, Jesusi edota Ama Birjinari abesten die. Egilearen iritziz, Jaungoikoak emandako hizkuntzaz otoitz egin behar diogu, bestelako jokabidea Harengandik datorkiguna mesprezatzea litzateke. Hona hemen aski ezagun egin zen hauxe:

JOSU BIYOTZAREN ABESTIYAK

IV

“Atoz guganontz — gure Josu;
eta gugandik — ez urundu.

Laxter aguro — jetxi bedi
donoki goitik — Biyotz hori:
Ez gaitzazula — Josu, guri
bakarik aren! — inoiz utzi.

Ene Biyotza — Biyotz ene,
maite nai — eta ezin maite.
Nolaz ordian — Josu gabe
gure gogua — sutan ere?

Goi oyetatik — ludiratu;
ez zaitetz, otoi, — gure Josu,
eta gogotan — sartu, sartu;
gu zu izateko, — zu beriz gu ”

—Aberri-Oyuak: Hemezortzi poema ageri dira multzo honetan, aberriari eta euskarari buruzkoak. Aberria “izadi ama” gisa ikusten du, alaia batzutan, bestetan tristea. Bere maisuak Arana Goiri, Astarloa edo Cejador direla dio.

Euskara galtzarekin obsesionatuta, ingurua etsaiz beteta sentitzen du, prest guztiak euskara akabatzeko: “Euzkera piztu, Euzkadi jaso, etsai gaiztuak eratsi: / Ene Ibero´tar zure asmua, nola zu gabe iritsi?” edo “Bakar-bakarrrik nik negar / Euzkera, igatik ein bear!” Antzeko doinu goibel negartia sumatzen da edonon. Hona hemen bi olerkitako zenbait bertso:

LEKOBIDENIA

“Parezka dar ibet emengo zorgiña
euskelduna ikusirik erdeldun egiña:
Gau zomoio itxusiyen iseka samiña
atsekabez biyotza lertzeko da adiña.

Euzkera galdu da ta Euzkadi ere bai;
izan lekixigukek Nagusiya normai.
Atoz, ba, arotz ori, ta jagoiti egon ai
aintziñako euzkuen jauregiyaren zai ”

AI AMA!

“Arotzak — ai Ama!
euzkera darama.
Euzkadi, —esnatu,
Euzkadi, —gorestu!

Baizaude — iya iya
alabik — gabia.
Ez euki — begia
lo zoroz — ai Ama!
euzkera darama ”

Goikoak eta liburuko beste poesiak hobeki ulertzearren, azkeneko atalean Aldayak utzitako ehundik gora hitzeko hiztegia irakurtzea komeni da: hona bertoko hitz bakar batzuk:

HIZTEGIXOA

Adia=lamento

Ala=tormento

Aporo=monstruo, sapo

Añen=blasfemia

Aokutz=cortejo fúnebre

Barendi=infierno

elito=versículos penitenciales

erio beltza= la fatídica muerte
iletariak=plañideras

irelu= duende

Neskutza= Birjiña

Obenge=sin pecado

Txaran=deabrua.

erkaba= patriarka

ERREFERENTZIAK:

Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.
Auñamendi.

Eusko Bibliografía.
Jon Bilbao.

Euskal Hiztegi Entziklopedikoa
Elhuyar

Lur Hiztegi Entziklopedikoa

Jose Ramon Astibia, *Olerkiak*, I. Lopez Mendizabal'en Irakola,
Tolosa, 1935
(K.M. liburutegiko Artxiboan dago)